



IRAILA

Gogoarazi, hemendik aurrera, "Ikastetxetik Zuengana" bukatu genuen bezala, ¹ elcolegioinforma@marias-gasteiz.org helbidean eskaera egiten duten familiei posta elektronikoaren bidez bidaliko zaie (eman seme-alabaren kurtsoa); ² ikastetxeko webgunean zintzilikatuko da; ³ atezaintzan ale batzuk utziko dira eta ondorioz ez da etxeetara bidaliko. (Agenda 21)

J	1	◆ Kirol federatua: entrenamenduen hasiera
V	2	
S	3	
D	4	
L	5	
M	6	
X	7	Kurtsoaren hasiera ◆HH: gutunean bidalitako ordutegia ◆ LH: 9etan (goizetan bakarrik) ◆DBH eta BATXILERGOA: AURKEZPENA 11:30etan ◆ Jantoki eta autobus zerbitzuaren hasiera ◆ Eskola kirola: entrenamenduen hasiera
J	8	◆ Eskola egun normala, lehenengo eskola egunean gogoratutako ordutegi berriarekin
V	9	
S	10	◆ Probintzia Marianista berriaren sorrera
D	11	◆ 12.30 Igandetako ikastetxeko mezen hasiera: familiak modu berezian gonbidatuta zaudete.
L	12	◆Olarizuko jaia: arratsaldean ez dago klaserik baina bai jantoki zerbitzua.
M	13	◆ Musika eskolaren hasiera ikasle guztientzat.
X	14	
J	15	
V	16	
S	17	◆ 9.00 Saskibaloia 3x3 Haurrentzako (7 – 15 urte)
	18	◆ Martiri Marianisten urtemuga.Eskolako meza. ◆ 9.00 Saskibaloia 3x3. Senior (16 urtetik aurrera)
L	19	◆ DBH Konbibentziak 1go A/B
M	20	◆ HH, LH ETA DBHrako Eusko Jaurlaritzako BEKAK ESKATZEKO azken eguna. ◆ 18h 2.zikloko guraso bilerak ◆ DBH Konbibentziak 1go C/D ◆ DBH Konbibentziak 4.
X	21	◆ 18h 3.zikloko guraso bilerak
J	22	◆ 18h 1go zikloko guraso bilerak
V	23	
S	24	
D	25	◆ 12.30 Ikastetxeko meza
L	26	◆ LH arratsaldeko klaseen hasiera ◆ 18h HHko guraso bilerak
M	27	◆ 18h Guraso bilera – jantoki zerbitzua (bideogelan)
X	28	◆ 18h Guraso bilera – Kanpoko ekintzak (bideogela) ◆ 18h Batxilergoko guraso bilerak
J	29	◆ Elkarbideako aurkezpena DBHn ◆ 18h DBHko guraso bilerak
V	30	◆ Batxilergorako Eusko Jaurlaritzako BEKAK ESKATZEKO azken eguna.

HH: Haur Hezkuntza LH: Lehen hezkuntza DBH: Derrigorrezko bigarren hezkuntza Batxilergoa

"En ti, un tesoro... bila ezazu". Gure haur bakoitza altxor bat dela konbentziturik gaude Marianistak. Ez da urrutira joan behar beraien izatearen arrazoian laguntzeko, egunero irrifar egitea eta bakoitzak behar duen modu horretan begiratzen lagunduko dien izate hori.

Agian, beraien beldurrak alde batera utzi eta bakoitzak bere barnean duen altxor handi horren bila jarriko diren "pirata" txikietan bihurtu beharko ditugu.

Kalitatezko heziketa integral bat ematen saiatuko gara, eta horretarako gure ikasle bakoitza lagunduko dugu, pertsona bezala hazteko, bere burua maitatzeko ...

Jainkoagatik maitatuak sentitzen dira, hezitzaileen, gurasoen eta irakasleen maitasunaren islada.

Hau izango da aurten proposatutako abentura:bakoitzak barruan daukan altxor hori aurkitzen lagundu nahi diegu, "en ti, un tesoro... bila ezazu!". Ongietorri abentura honetara! Ziur nago, elkarrekin "piratatxo" hauei altxorra aurkitzen lagunduko diegula!

2011
CURS
2012
IKAST
URTEA
EN TI,
UN TESORO
BILA
EZAZU!



1 2011-2012 IKASTURTEKO EGUTEGI OROKORRA

Urtero bezala urteko [egutegia](#) atxikitako orrian dago. Maiatzaren 25ean onartu zen. Eskolako web orrian daukazu.

2 GURASO BILERAK

Ikasturte hasieran ohikoa den moduan, bilera bana egingo dugu hezkuntza etapa bakoitzeko, ikasturtea aurkezteko. Aurten, bilera orokorrean kurtso bukaeran hartutako erabaki batzuk eta eskolako eredu linguistikoa azalduko dira Berriz ere azpimarratu nahi dugu bilerok garrantzi handia dutela, familiaren eta ikastetxearen arteko harremanetarako.

Bilerak honako egun hauetan izango dira:

- **Haur hezkuntza:** Irailak 26, astelehena, **18etan. (Haurtzaindegia izango da)**
- **Lehen hezkuntzako 1go zikloa:** Irailak 22, osteguna, **18etan. (Haurtzaindegia izango da)**
- **Lehen hezkuntzako 2.zikloa:** Irailak 20, asteartea, **18etan. (Haurtzaindegia izango da)**
- **Lehen hezkuntzako 3.zikloa:** Irailak 21, asteazkena, **18etan.**
- **Derrigorrezko bigarren hezkuntza:** Irailak 29, osteguna, **18etan.**
- **Batxilergoa:** Irailak 28, asteazkena, **18etan.**

3 IKASKETA BEKAK

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza maila **GUZTIETAKO** bekak eskatzeko prozesua abian jartzen duen [dekretua](#) argitaratu du, Euskal Herriko boletin ofizialean (Abuztuak 31, 165.znb.). Eskariak egiteko epeak: HH, LH ETA DBHrako **irailaren 20an** amaituko da eta batxilergorako **irailaren 30ean**. Eskabide orriak ikastetxeko idazkaritzan daude. Gogoratu Beka marianistak eskatzeko – epea otsailan irekitzen da- **ezinbestekoa dela** Eusko Jaurlaritzako beken izapideak egitea.

Aurten Aldundiak kudeatzen zituen liburutegizako diru-laguntzak ez daude.

4 PROBINTZIA MARIANISTA BERRIA

Askok jakingo duzuen bezala, Espainiako Mariaren Lagundia - Marianistak bi probintziatan banatuta dago: Madrilekoa eta Zaragozako. Orain arte gure eskolak Zaragozako probintziaren barruan egon dira. Irailak 10etik aurrera probintzia bakarra izatera pasako gara sedea Madril delarik.

5 IDAZKARITZA ETA LIBURUTEGIKO ORDUTEGI BERRIAK

Liburutegia ikasleentzat irekiko da astelehenetik ostegunera 17tatik 18:30etara. Idazkaritzako ordutegia 8:30etatik 13tara eta 16:30etatik 17:30etara izango da.

6 JANTOKI ZERBITZUA 2011-2012

Jantoki zerbitzua irailaren 7tik aurrera hasiko da. Bonoen bidezko funtzionamendua kurtso amaieran bidalitako erantsi batean azaldu zen. [Web orrian zintzilikatuta dago](#) Idazkaritzak apartadu batean -zirkularrak-. Bono hauek erabiltzeko gutxienez egun bat lehenago eskatu beharko dira idazkaritzan. Eta bono hauetaz gain, badaude beste hainbat nobedade: HHko haurtzaindegiko bata (honi buruzko informazioa bidaliko zaizue), jantoki zerbitzua eskainiko da goizez bakarrik eskola dagoen egun batzuetan (eskola egutegia begiratu) eta heziketa lan bat egingo da maskotekin.



7 HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

Kurtso amaieran esan bezala, goizetako haurtzaindegi zerbitzuarekin jarraituko dugu, 7:45etatik 8:40ra. Honetaz gain, arratsaldetan ere izango dugu 17tatik 18tara. Zerbitzu honek 25€ko kostua izango du eta 5€ momentu puntaletan. Zerbitzu hau goizez eta arratsaldean erabiltzen bada, 40€ko kostua izango du. Interesatuak ikasturteko lehenengo astean eman dezakezue izena, idazkaritzan, guztia antolatu ahal izateko.



8 Bazatuz SANTIAGOKO BIDEA egitera?

Pasa den apirilaren Santiagoko Bidearen zatia egitearen eskarmentua izan ondoren, eta zuetako batzuk bultzatuta, zenbait irteerak prestatu ditugu kurtso honetarako. Gure asmoa Santiagoko Bideko 5 etapa egitea da. Apunta itzazue dagoeneko aukeratutako datak: 1.etapa (urriak 25, asteartea): Tolosa-Beasain; 2.etapa (azaroak 13, igandea): Beasain-Zegama; 3.etapa (martxoak 25, igandea): Zegama-Agurain; 4/5.etapa (apirilak 21-22): Agurain- Estibaliz – Gasteiz. Hemendik gutxira informazio gehiago emango dizuegu Web orriaren bitartez nola apuntatu daitekeen jakin dezazuen.